



Eman hegoak euskarari



Xabier Lete omenduz

Hamar saio laburrez osaturiko liburua plazaratuko dute hainbat idazleren lanak bilduz

JON KORTAZAR



2010eko abenduaren 4an hil zen Xabier Lete (1944-2010) poeta eta kantaria. Eta gogorarazteko eta omentzeko asmoz hainbat argitalpen egin dira azken hilabeteetan. Ez Dok Amairu taldearen barnean toki berezi izan zuen Letek. Eta, gerora, haren irudiak zuen xarma areagotu egin da. Kantari talde hartan, hiru ziren poetak eta hirurak ez nolana hikoak: Xabier Lete; Joxanton Artze eta Jose Angel Irigaray. Kantariak, berriz, eta hauek ere ez nolana hikoak, Mikel Laboa eta Benito Lertxundi. Alex Gurrutxagaren 'Xabier Lete. Aberriaren poeta kantaria' izan zen lehena agertzen.

Susmoa dut izenburuak baduela mamia. Lete poeta nazional gisa ageri du, eta behin eta berriro azpimarratu den poetaren eta kantariaren arteko zubia marraztu du. Xabier Leteren poesiari buruzko tesia egin du Gurrutxagak eta bere liburuari nabari zaio hori.

Beste bide bat aukeratu du Ainhoa Urienek 'Poesia, zaurien ukendu' izeneko bidaia emozionalean. Egileak aitortzen duenez, «unibertsitateko lan akademiko hura saiakera ez-akademiko» oso interesgarri bihurtu du bere liburuan. Joxerra Garzia hitzaurregilearen ustez, bidaia da liburuaren helbidea, lilura baten kronika.

Neurri batean, bide bi uztartu eta bilbatu ditu Urienek liburu honetan: Xabier Leteren irakurketa eta hura ezagutu zutenekin egindako solasaldiak, eta bidea da esanguratsua kontaketan. Bildu dituen aitortpenak oso adierazgarriak dira: Arantxa Lete arreba, Joxan Gokoetxea musikaria, Jose Angel Irigaray bidaidea, Santi Sánchez etxeko lanen arduraduna, Felix Zubia eta Anjel Mendia osagileak... Lete ezagutu zutenen ikuspegia eta egileak irakurketan sortu duen pertsona elkartzaren dira emozioz beteriko lan honetan. Agian, literaturaren historiako zertzelada batzuk huts egiten dute, baina txi-

kikeriak dira Ainhoa Urienek egin duen bide argitsuan.

Balea Zuria argitaletzeko arduradunek ere omenaldia eskaini nahi diote Oiartzungo poetari. Hamar saio laburrez osaturiko 'Urrats urratuak. Xabier Leteren omenez' liburua plazaratuko dute hainbat idazleren lanak bilduz. Garbi azaldu dute lanaren arduradunek bere asmoa poetaren heriotzaren hamargarren urtemugan omenaldia egitea dela. Lehen ideia idazle sortzaileen lanak biltzea izan zen; ahal izanez gero, gertukoak, adiskideak edo poeta ongi ezagutu zutenak, eta horrela batu dituzte lanean Anjel Lertxundi, Arantxa Urretabizkaia, Juan Kruz Igerabide, eta Inazio Mujika Iraola, Itxaro Borda eta Jon Gerediaga sortzaileak. Baina poetaren inguruko lanak ugaltu egin direnez azken garaian, egile aztertzaileak ere ageri dira bilduman, hala nola Ainhoa Urien bera eta Jon Martin bertsolaria. Liburuan aipatutaz, Leteren alde bi nabar-

mentu dira: aldi bulartsua eta abaildura. Eta egia da joera patetiko hori dela gehien ageri dena liburuan.

2016an, Sebas Garcia Trujilo ikerlariak 'Hamaika euskal literato eta Jaungoikoa' liburua atera zuen euskal idazleek Jaungoikoarekin zuten sentipen erlijiosoa lantzeko. Bide horretan, 'Hemen' aldizkariaren zenbaki berezia zuzentzen ari da, Xabier Letek (eta harekin batera Joxean Artzek) erlijioarekin zuten lotura zehazteko asmoz. Balea Zuria liburuaren arduradunek idatzi dute «damua, fedea eta maitasun sakona» izan direla Leteren bizitzan eta obran agerturiko hiru zutabe nagusi. 'Hemen' aldizkari monografiko horrek antzeko helburu du: «Lete azaldu nahi dugu gizatasun, erlijiosotasun eta sinesmen ikuspuntutik», eta horretarako poetaren lagunengana jo dute ikuspegi hori ahalik eta sendoen eskaintzeko Xabier Leteren irakurle eta entzule den orori.

Errepidean

JAVIER ROJO

Pello Lizarralde berebiziko abildadea du narrazio batean xehetasunak islatzeko. Momentu oro hitz egokia erabiltzeko ahalmena du eta xehetasun horien artean sentsazioei dagozkienak lehenengo plano batean agertzen dira, halako moduan non gai baita irakurleak sentsazio sare horretan murgilarazteko. Abilezia honen beste froga bat utzi digu 'Argiantza' izenburuko nobela labur honetan. Argumentuak, azalekoenari erreparatu gero, ez daukala interesgarria izateko gauza handirik ematen du. Izan ere, zine aretoak dauzkan enpresa bateko gerenteak bidaia egiten du aretoak ikuskatzeko eta pertsonaia, beraz, ezer berezirik ez duela dirudien bidaia batean sartuta ikusten dugu. Ez da ahaztu behar bidaia beste klabeetako bat dela Lizarralderen literaturan. Errepide literatura egiten du askotan eta, gure inguruak honelako literatura egiteko oso egokia ez badirudi ere, hor daukagu

idazlearen magia edozein bidaia arrunt misterioitsu eta transzendente bihurtzeko.

Kontakizuna hiru mailatan gauzatuta dago. Alde batetik hirugarren pertsonan idatzitako atalak dira, zehatzak, xehetasunez beteak. Bigarrenez, gerenteak berak lehen pertsonan kontatzen arduratzen dion inpresioa eta bere bizitzari buruzko zenbait xehetasun azaltzen diren, doi eta egoki. Eta hirugarren mailan bidaian topatzen dituen pertsonaiek beren ikuspuntua eskaintzen dute. Idazkeran ere desberdintasunak islatzen diren hiru maila horien bidez erreferentzia gurutzatuen sarea sortzen da, eta irakurleak poliki-poliki osatu ahal du bidaia honen izaera.



ARGIANTZA
Pello Lizarralde
Erein. 88 orr. 12 euro

Lizarralderen istorioetan gertatu ohi denaren kontrara, honetan argumentuaren garaia zehatza da, 80ko hamarkadaren hasiera. Lekuak, ordea, misterio giroan irudikatzen dira, eta bidaia arrunta labirinto batean galduta dagoen pertsonaia ibilbidea bihurtzen da, handik atera nahian noraezean galduta dagoelarik.

Esperientzia estetiko ia thrillerra bilaturik erakusten digu nobela bikain honen.

LABUR LABUR

Garrok irabazi du Agustin Zubikarai saria

EL CORREO

Lander Garroren 'Faith' nobela proiektuak irabazi du Ondarroako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten Agustin Zubikarai saria. Hogeita bederatzitan aurkeztu dira eta, horien artean, Garroren proposamena aukeratu du Leire Bilbao, Xabier Mendigurenek eta Ana Urkizak osaturiko epaimahaiak.

Xabi Ugartek, idazlearen alter egoak, Bartzelonan pasatzen duen egonaldia kontatzen da liburuan, argazkilaritza ikastera joanda, hemengo giro nahasitik eta poliziaren jazarpenetik urrundu nahian. «Idazkera fresko eta sinesgarria, eguneroko bizitzaren taupadak idatziz jasotzeko abilezia, gai jasoen eta xeheen arteko konbinazio egokia eta testuaren erritmoa» nabarmentzen dira, besteak beste, eleberri-asmo honetan.

Lander Garro 1975ean jaio zen Errenterian, eta 'Orain galdera berriak ditut' ipuin liburua eta 'Kontrarioa' eta 'Gerra txikia' nobelak idatzi ditu orain arte. Ikus-



Lander Garro.

entzunezkotan, telebistan eta musika bideoak egiten jardun da, eta 'Bi urte, lau hilabete eta egun bat' intsumisioari buruzko dokumentala ere egin du.

Besteak beste, 'Hobe isilik' (Garbiñe Ubeda), '33 ezkil' (Miren Gorrotxategi), 'Amek ez dute' (Katixa Agirre) eta 'Afrikanerrak' (Eneko Barberena) eleberriak babestu ditu aurreko deialdietan Agustin Zubikarai sariak.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Eusko ekipajea
Ibon Egaña Etxeberria. Alai

2 Aitaren etxea
Karmele Jaio. Elkar

3 Dendastekoak
Uxue Alberdi. Susa

4 Ene baitan bizi da
Maddi Ane Txoperena. Elkar

EZ FIKZIOA

1 Kontrato ezarririk
Uxue Alberdi. Susa

2 Hiruki gatzakatxua
Marina Sagastizabal. Susa.

3 Bidason gora
Eneko Aizpurua. Elkar

4 Feminismoa denon kontua da
Bell Hooks. Katakarak